

«TXILLARDEGI»-ren TIROAK eta LAÑOAK

Masail batean jo zutenean bestea erakutsi omen zuan Kristo'k. Baiñan santutasunaren iturri bezala gelditu zan. Gu, sabindiarrok, anitzetan egin degu orrelakorrek esker aundirik jaso gabe. Bai'izk bestealde, idazki onen ardatza dan "teorikoak" ongi zabaldu zuan kemenik gabekoak gifaala, ain erowiak geundelarik erantzuteko doarik ere ez genuela, "poder de reaccion" ori ere galdtu genuala. Eta egia esan, inoren "cabeza de turco" izaten asper-asper eginda gauda.

Lizkarren etsai, pakezale izandu gera beti. Gure gogozkoa izandu da beti Xenpelaren "ni ez naiz gerraren zale..." bertsoa. Iduritzen zaigu, baiñan, oraingontan bertso orren "Zeinek nai duan galde, berari tira, dale!..." zatia egingiz bihurtzera bultzatzen gaituztela.

Izanik, ordea, aski jende beti beste masailla jartzan ikusi nai gaituztenez, eta inoiz orrelakori egin ez ba-degu burrukalari bezela salatu gaituztenak, burruka norok sortu duan aztertzen komeni ez zaitelarik... ba, auei, pakea eta batasunaren "puritano" auei, iztaurre onen ondoren Urrilla'k I'go Zeruko Argia'n "Txillardegik" baten idazki luze-zoroa irakurri dezatela eskatuko noike. Gu, okiñaren antzo, inriñetan murgilduko gaituzte.

Aifututako idazki ori maltzurkeri latz bat da, "buria sangrientoa" esango luke erderantozalderen batek. "Orixe" goratzeko aitazki, eginda esan diran izi traketsenak esaten zaizka. Eta zer esango genuke Z-aren burubideaz zenbaki orren izi-aurtean ba-dio: "Orregatik ez da aldizkari onen asmaoa sakabanatzen gaituzten alferrikako eta kaltegarriko ikamikei su ematea". Eta polboraren ondoan popoxpola piztu, aitaturiko idazki orri toki emanaz. Onelako maltzurkeririk! "Askok ez digute ulertu". Ezetz? Ain ongi ulertu degu! Ba-liteke bein edo bein guk bizia eman genion aldizkari au jorrateza.

"Hala ere, "ORIXE" idazterakoan euskalduna zan, baiña Ormaetxea erdalduna. Idazterakoan, eta literatura egiterakoan, euskeraz mintzo; Hitzegiterakoan erderaz". Gezur galanta, esan degu ongi ezagutu genuaunak. Milla bider ikusi izan nuan Tolosa'ko batzokian, eta beti-beti euskeraz mintzatzen.

"Guatemala'ki etortzean... buruz-buru ezagutuko aukera izan genuan". Baita "klinikara ikustamen bat egitera joan". "Eta guk euskeraz", "ORIXE" k bein eta berriz erderaz arantzuan". Eta asarre esan: "Adi zazu, ORIXE, euskeraz ere (au ongi ausnartu, irakurle) bakdigu". "Baiñan "ORIXE" k ez zuan nere ziria ulertu ere egin". Ondogei ORIXE'k bai-bai zutuan onelako gauzak. Aztertu dezagun, baiñan, ori egi baldin ba-da zerk bultzarazi zuan jokabide orretara.

"Txillardegik" maltzur jokatu du beti, otzean. Ala ere, "Txillardegik" izenordea autatu zuan ez zan ongi egon. "Untzategik" bear zuan. Euskal arloan sartu dan asiera-asieratik agertu bai du "trepadore" bikain bat dala. Beti aundikian alboa biltzaten, eta "adin-diferentzia" dala-ta aurturan ixilik, atzekoz epzata sartzeko. Eta beti ueste-aundiko edo pedantea.

"ORIXE ez zan, nere uestez, euskal intelektualentzako (?) buruzagi egoki bat, eta ez gutxiagoriki ere". Auxe dio idazkian, eta auxe pentsatu zuan orduan. Bere maixukeria eta bere pedanteria ezagutzen degunontzat, garbi dago onela ere pentsatu zuala: "Ni izango nau buruzagi ori". Eta ontan par dagiotz antzek antzi-ko kolonizadorengatik ziotenei, alegia, irudi apurtzaila (ikonoklasta) batzuek ziralaa. Aiek, jaingo-aitzunak ken eta beren uestez egizko Jainkoa ipintzen zuten, ez berak baiñan. Txillardegik mito guztiak apurtu nai ditu, aldaeran mito bakarra bere burua ipiñirik.

Eta onetzaz jabetu zan, noski, ORIXE. Idazle "progresista" "azkar" onek konturatu gabe bere aitoritzen bai-du, ikustamen orretaz ari danean: "ni existentzialismotik bertan sumaturik, nunbait, filosofia horren kontuan mintzatu zitzaidan gogor, eta erderaz, esan duan bezela". Eta geroxeago: "Alderantziz gauza bere gertatu bide zan: ORIXE'k ez nindun batere gogoko".

Arestian, nere adiskide batek emana dit onetzaz beste arrazoi txiki bat. Maiz mintzatzen omen da Txillardegirekin. Eta, jakifia, nik galde:

- Euskeraz mintzatuko atziok, noski?
- Ez bada, gaztelera. Txillardegik jaun orrek ez dik mereti euskeraz itzegitea, erderaz baizik.

"Beraz, ziur gaude, orrenbeste arto-bero usaiak okituta erderaz erantzun ziola, baiñan zer eginen zuan ongi aski jakifien. Euskal-gaitzotz joan zitzaiolarik, are geiago.

Goazen aurrera. Emen dator, ordea, gaur darabilgun auziaren beste kakkoo. "Txillardegik"-ri on deritzaio aitzaiki txikienez sabindiarren aurka jaikitzea. "Txillardegik"-k, beti intenzio txarreko, naastu egin nai du Euskaltzaindia eta alderdia: "euskaltzain batzuk, gauz ez bai-ziran euskeraz mintzatzeko". Izen batzuk ematen ditu, alderdikoez ez zirenak, Baiñan jarraime-nean asmo gaitzotz onela: "Alderdiko euskaldun puntuzko askoren seme-alabak euskeraz ez dakite, beren etxeetan erdera baitzan hizkuntza bakarra". Zenbaitetan egi ditek au. Baiñan ORIXE'ren luman jartzan du beste egi bat, alderdikoez esana, danok ez bai-ginan berdiria: "Euskalduna ez dan euskotarrak ez du aski euskotar dala esatea, eta abertzale dala esatea, gure ikuntza ikasten alegiñak eginen ez ba-ditu". Beraz alderdikoko saiatzen ziran "euskoak" euskaldunak bihurtzen. "Komilla" ar-tean ipintzen degun orri zergatik ez dio erantsi auxe: "Eta ala ere alderdikoei zor diegu guk euskeraz jakitea, alderdikoei erakutsi zidaten euskera". Eta beste au luzatu: "Egia esateko, sabindiarrek uestetik asi ziran".

ORIXE'rekin nago ortan. Ez diot nik apergirik aterako bear bezela jokatu ez zuanai, baiñan ez ziran danak onelako. Eta zuk, Txillardegik puritano orrek akatsik ez ote dezuz? Dana eginda arkitu zenuten, eta zer? Egun, euskaltzain guztiak amar minutuan itzegin al dezakete euskeraz? Eta zure adiskide, baiñan "mito berri" izan nai ortan etsai dituzun jakintzen uestean euskeraz mintzatzen aldira? Zaitetz gizon egi esaten, bestela neroni duin ba-naiz pakean dauden oien izenak argitaratzeko. Bai-al-det zere baimenik?

Goazen aurrerago. Dizu ere: "Mami guzia españeraz, ximplekeriak euskeraz, gauza inportanteak erderaz: horra or orduko legea". Onerako "Euzkadi" eta "El Dia" aitatzan dituzu. Baiñan zergatik ixiltzen dezun zeredozer giñanean atera genuan "Eguna" egunerokoa? Leiala ba zifia aitortuko zenuke izparrigiri ontan, egunero eta guztia, euskeraz bakarririk zala. Baita goitirik zezotzen aginduak ere.

Utzi dezagun, orain, baiñan, uestetik asi gifaala. Delo ber-bere esan zuan Kruttwig bateg "Vosconia" liburuan. Norbaitek utzi zidan, eta tentaziorik ezin uestirik, esakun orren alboan, liburuan lanurari kalte ezinik, auxe erantsi nion: "Kruttwig'ek bere "Biblia", bere "trazendentziko" liburu onetan eginen duan ber-bere, erderaz idatzi". Hiler'ek eman ote zion "bula" bereziren bat?

Eta zorerrek, zuk zuzentzen dezun "Branka" aldizkarian, zertarako jardun oi zera gauza "inportantean" erderaz? Ba-det geiago. Maltzurkerizko negar-zotifnez alderdiko aundikiari ba-zabiltza esaten "incomprendido" bat zerala, leninismoa sartu zitzaizula, mutil ona zerala, baiñan bakarririk zaudela... baiñan laguntzo berririk biltzain zaikitza. Eta ara esan, eta esan kalterik egingo ez dituzalako onuzkeroz: Arestian L. mendian ez zifian ain bakarririk arkitu. Zein izkuntz erabili zenuan gelenbat batzar "inportante" orretan? Eta zergatik?

"EUSKALDUNAK" poemaz, zer? "Apoteosis del jebismo" bataiatu omen zuan Kruttwig'ek. Zer biterik esan dezake idia eta astoaren "kalaberak" aitoratzen dituanak? Esaten dezu bai atzetik: "Ez dakit nik hau egi osoa ote dan". Itz leialak? Itxuraz ez, atzeagoin bai-diozu: "ORIXE kondentatzen, beraz, gure aurrekon "indiozeria" kondentatu nahi dugu. Eta, "indio-

en espezialista zan". Eta zeintzuk dira burgeskume xoxialista-humanista onentzat indio'k? "Aralar'ko artziaik". Eta baserritarrok. Beraz, teknokrata onentzat sozialtasunik ez dute arziarik eta nekazariek. Eta gero jaun onek esan bear poeman ez zuala sozial arazotik apa! Ez da teknokratik ere. Ba-zun nun makilla astindu! Baiñan ark, ORIXE'k, al zuana egin zuan. Eta bere gogoaren arabera.

Mistikogegia zala egotzi diozu. Mistikoa, baiñan zintzoa. Zuk zerean orrela? Egingo nukue apustu, eun kiko errosario eta gurutz lepotik zintzillika ibiliko zifiakeala, garai batean Fidel Castro'k bezela, zureakin ateratzegatik. Gero, zurea lorturik, Castro'rena egingo zenukeala ez det zalantzirik.

Gramatikari buruz zure jardunaz, zertxobait, luzatzen ari nai-eta. Batzuetan ORIXE eredu bat dala, bestetan ezetz, kontraditio batean zabiltza eta orbelaa aietzera bezin txoraska. Ontan ere zure maixukeria azaldu nai dezuz. Nik aski lan det nere akatsikin bestererenatan sartu gabe. Zuk ere maixukeria utzirik idatzi zazu, bear-bada obetogo idatziko dezuta. Ontan etxeko-andre "jakintsu" askoren antza artzen dizut. Ba-dira ifiori eltzeakiri goxia ipintzen erakusten jarduten diranak. Ainbeste denboran sutan, ainbeste gat, ainbeste olio eta abar eta abar. Baiñan beifiere eltzeakiri on bat antolatu ez dute. Zergatik? Bearrezkoena falta zaielako: sua pizten ez jakin.

Etxekoandre onen antzera, ez dakizu euskal-sua pizten, ez dezu euskal senik, eta orduan zure idazkiak ulerkaitzak, aspergarriak eta az-tunak dituzu. Aundikeriz goi-mailako liburuetan sartu zereanean buru-bero (Mente calenturienta) baten "abortoak" sortu dituzu, "morbosoak" bai gailaz, -naiz erlijio nai euskalarazo- eta bai esan-naiaz. Aspergarriak eta lo-arazleak.

ORIXE'k langillediaren arazotik ez omen du ikusten. "Txillardegik" orren "exploataza" ote da? Ez dirudi. Batzuek oporteran erriatik ateratzetik ez degunear bera Idaho'ra joan. Ba-zegoan txanponik! Ez? Orduan, eruririk gabe aungo euskal-artzai-"indioen" txanponak ekartzera! Nolanai ere buru intelektual eta maixua erakustera.

Zure "desmitifikazio" jardunketa ortaz kutsuturik (kontajaturik) "mito Txillardegik" orren aurkako beste zerbaitek ba-det. Esan det asieran ifior goratzeko aitazkiak zuk ORIXE bera eta sabindiarrok jipoitzea ez detala onartzen. Zerorri "mitoa" nola izan nai? "Iraultza", "gerla" eta gogorkeria jainkotu (defikatu) zenuan, eta lenengo xaltzan... anka! Onetzaz erri-aresti bat datorkit burura:

"Ango tiroak eta lañoak
az zindan kañonazuk
....."

Nere "desmitifikatze" arrazoi besteak baioko ez ba-lute ere, bertso onen azken puntua naioko izango litzake "mito Txillardegik" dalako ori autz biurtzeko.

Eta amaitzeko, "Txillardegik" k artikularean azkenean, erdian zer zeredozer, ematen duan jabeti eta koipea "eutanasia" zalecna iduritu zait. Bizirik irazi esan nai duana il, eta oraindik mesceda egin zaiola esan. Euskal gizadia onela dabil.

UXOLA

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

ATE OPARIAK
Victor Pradera, 2
Urrutizkina: 425700 DONOSTI